

# Jardunaldiak

# **Euskara biziberritzen jarraitzeko erronkak**

Bilboko egoitzan, 2016ko otsailaren 12an

## Kronika

Bidegurutzean ezker edo eskuin jo? Hau ez da bidegurutze soila, hau bideko biribilgune horietako bat dugu. Biribilguneak onak dira hartu beharreko bidez oso ziur ez gaudenean, bira osoa egin eta nondik joan argitzeko. Biribilgunean itzuli-mitzuli ibiltzeko arriskua ere badugu, ordea, erabaki ezinik, ibilian geldirik.

Biribilguneako bide guztiek gure helmugara garamatzatela-eta edozein bide har genezake; hobe, zuzenagoa, zabalagoa eta motzagoa zein den begiratu gabe. Aurrera egin, ibili. Zalantza-dantza aski izaten du oztopoz betetako bideetan barna ibili beharra duenak.

Biribilgunearen irudia baliagarria da euskararen biziberritzea zer egoeratan dagoen zehazteko. Ahots ugari ziklo baten amaieraz mintzo dira eta, horretan behintzat, adostasuna badago ere, ez da hain argi ikusten bide berriek nora eramango gaitzaketen. Euskaltzaindiak zalantza aro honetan bere ekarpena egin nahi izan du eta horretarako propio, 2016ko otsailaren 12an, “Euskara biziberritzen jarraitzeko erronkak” jardunaldia antolatu du.

*Euskera* agerkariko lehen zenbaki honetan jardunaldi hartan irakurri ziren bi txosten argitaratuko dira; alegia:

Kike Amonarriz eta Jasone Mendizabalek, Euskararen Topaguneko ordezkariak, euskara sustatzeko elkarteen inguruko hainbat eragilek egindako hausnarketaren emaitzak.

Josu Waliñok euskararen sustapena eta Internet harremanean jarriz landu duen txostena.

Irakurri ziren beste txosten batzuk *Euskera* agerkariko 2016-2 ikerketa zenbakian argitaratuko dira. Zehatz-mehatz honako lan hauek izango dira:

Patxi Saez soziolinguistak “Elefantearen Paradigma” euskararen biziberritzeak bizi duen egoeraz garatu duen diagnosia aurkeztu zuen. Esandakoa “Beharra da giltza” artikuluan bildu du.

Patxi Juaristik, Euskal Herriko hiztun-komunitateak aztertu ditu eta, beraien arteko harremanetan, balio etikoetan oinarrituriko diskurtso baten beharra aldarrikatu du. Hori guztia “Hizkuntza komunitateak harremanetan Euskal Herrian” artikuluan jaso du.

Bittor Hidalgo filologoak bizi dugun errealitatea ezagutzeko hainbat gako eskaini dizkigu “Irabazteko gidalerro bila” artikuluan.

Olatz Altunak eta Maialen Iñarrak euskararen erabilerak ageri dituen argi-ilunez mintzo ziren. Bertan esandakoak, gerora argitaratu diren azken kale-neurketen emaitzekin uztartu dituzte eta “Euskararen ahozko kale-erabilera: erronkak” artikuluan idatzi.